

Ikastetxea etorkizunari begira



Etorkizunari begira ondorengo ezaugarriak dituen ikastetxe bat izatera iritsi nahi dugu:

1.- Ikasleak:

- Pertsona mailan: zentzuduna, erreflexiboa, autonomia, arduratsua, euskalduna, arazoak konpontzen dakiena, autoestimu ona duena eta zoriontsua, motibatua, kritikoa, jakin-mina duena, Ingurumen arazoetaz jabetzen dena, solidarioa, guztien ideiak eta eskubideak errespetatuko dituena, ezberdintasunaren aberastasuna baloratzen duena eta elkarriketari garrantzia ematen diona.
- Bere hezkuntza baliagarria sentituz prozesuan inplikatzeko dena.
- Akademikoki, hiru hizkuntzetan, bestelako edukietan eta ikasteko trebetasunetan prestatua dena.

2.- Ikastetxe euskalduna, era normalizatuan erabiltzen duena, ikastetxeko harremanak euskaraz eramanaz.

3.- Gizarteak planteatzen dituen erronka berriei adi dagoen ikastetxe dinamiko eta prestatua, eta, era berean, beraiei aurre egiteko prestakuntza egokia ematen dakiena:

- Teknologia berrien arloan.
- Baliabide egokiekin, instalazio eta material pedagogikoen aldetik.
- Irakasleen prestakuntzan.
- Gizarteko arazoen aurrean (herrigintza, gazteria...).
- Mugak irekitzen dituen ikastetxea: beste kultura eta hizkuntzei zabalik.

4.- Era egokian ikasleak orientatuko dituena.

5.- Ingurumenarekiko errespetua duen ikastetxea, jasangarria, ingurumenarekiko zintzo jokatzeko hezitzen duena.

6.- Ikastetxeko proiektuan inplikaturik dagoen irakasle-taldea duena:

- Ondo prestatua.
- Kohesionatua.
- Lana ondo antolatua duena.
- Ikasleen motibazioa lortzen saiatzen dena.
- Lanera gustora, motibatua etortzen dena.

7.-Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko estamentuen arteko harreman onak sendotuko dituenak:

- Denon parte hartzearen garrantzia azpimarratuz.
- Lankidetzaren bultzatuz, giro lasai batean.
- Helburu adostuak eta errealistak izanik ildo berdinean arituz.
- Guztiaren gogobetetasuna lortzeko asmoz.

8.- Ikastetxeak eskualdearen ezaugarriak erantzunez, heziketaren prozesua ardazten duena.

9.- Irakas-ikas prozesua sistematizatua duena.